



PRENTSARAKO OHARRA

18/09/21

Foru Aldundiak zenbatu dauenez, udan 2.666 persona etorri dira Bizkaira Sahara azpiko Afrikatik

Bizkaiko Foru Aldundiak zenbatu dauenez, urte honetako bagilaren 20tik irailaren 19ra, 2.666 persona heldu dira Bizkaira Sahara azpiko Afrikatik. Holan baieztatu dau Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Foru Diputatuak gaur goizean batzordearen aurrean egindako agerraldian, EH Bildu taldeak eskatuta, errefuxiatuen iritsiera dala eta bere Sailak emondako laguntzaren ganean berba egiteko.

Persona horreek, zehaztu dauenez, “gehienetan helmugea Frantzian eta Belgikan daukan migrazino proiektuagaz” heldu dira Bizkaira. Hori dala eta, “igarote migrazino migrazinoaren fenomenoaren beste tipologia bat dala” nabarmendu gura izan dau.

Laespadak zehaztu gura izan dauenez, garagarriaren 9tik arlo hori Eusko Jaurlaritzaren eskumena bada be, Foru Aldundiaren konpromisoa “bere erantzukizuna eskumenak gaindituta betetea da”. Hori dala eta, Andaluziara pateran heldutako persona talde bat Bizkaira heldu behar zala eta bagilaren 20an Aldundiak jaso eban dei baten ondorioz, bere Sailak hainbat jarduketa jarri ditu martxan. Ekintza horreen helburua, “gizarteratzearen esparruaren barruan dagon erantzun azkarra eta profesionala emotea” izan da.

Alde batetik, Laespadak adierazo dau “komunikazino arina eta etenbakoa” izan dauela Espainiako Gobernuaren Emigratorako eta Inmigratorako Estaduko Idazkaritza Nagusiagaz eta Inmigratorako eta Giza Arretarako Zuzendaritza Nagusiagaz, alkarregaz behar egiteko. Horrez gain, estrategia komuna jarri da martxan Bilboko Udalagaz, “heltzen ari ziran personei lehen harrerea eta eguneko eta gaueko arreteak eskaintzeko dispositiboa” martxan jarteko.

Jarduketa azpimarragarrietakoa, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta arlo horretan adituak diran gizarteratze arloko erakundeen arteko mahaia eratzea izan da. Erakunde horreen artean Gurutze Gorria, CEAR eta Munduko Medikuek dagoz, beste batzuen artean. Mahaiaren helburua erantzun koordinatua emotea da.

Aurrekontuei jagokenez, Teresa Laespadak “erakundeen arteko mahaian ezarten diran konpromisoak aurrera eroan ahal izateko beharrezkoa dan aurrekontuetako partidea ezarteko” konpromisoa erakutsi dau.

“Emoten dau igarote kontzeptu horrek errealidadeagaz bat ez datozan jarduketa falta batzuk justifiketako balio dauela”, erantzun dau Josu Unanue EH Bilduko batzordekideak bere berbetako txandan. Batzordekideak adierazo dauenez, bere taldeak bersino bi ari dala jasoten sentiduten dau: “Iruditzen jaku bat administrazioaren bersinoa dala, eta bestea errealidadea”. Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko batzordekidearen eretxiz, Sailak hilebete horreetan aurrera eroan dauen jarduketea “hutsa izan da”. Ganera, De

Madariagak “auzokideen mobimenduen partaidetzea baztertu izana” aurpegiratu deitso Foru Diputatuari.

Eduardo Andrés batzordekide popularra, barriz, ados agertu da “errefuxiatuaren” eta “igaroteko bidean dagonaren” arteko bereizketeagaz. Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroalea, personak itzultzeko Frantzia emoten ari diran prozesuetan zentratu da. Batzordekide biek erakunde guztiek gai horri batera ekin behar deituela azpimarratu dabe.

Juan Otermin sozialistaren berbetan, Bizkaiak “arazo larria dauka, eta modu koordinatuan erantzun behar deitragu”. Bere eretziz, horretarako beharrezkoa da “guztiok ibilpide orri berean egotea”. Horri jagokonez, Oterminek “alkartasuna ez dala nahikoa” argitu dau, “eukia emon behar jakola”. Ildo berean, Jane Eyre Urkieta batzordekide jeltzaleak “kontu handia eskatzen dauen errealidadea bizi izan dogula eta oraindino bizi dogula” gogoratuaz dau; ganera, eskerrak emon gura izan deitseez erakunde guztiek, eta argi itzi gura izan dau “horrek ez dauela gizarte zibila albo batera itzi dala esan gura”.

ENPLEGURAKO ANEZKAK

Enplegu Foru Diputatuak, une honetan Anezka programea osatzen daben 17 enplegu anezketako partaide diran personen laneratzearen ebaluazinoa eginez ireki dau saioa. 2016an martxan jarri zanetik gaur egunera arte, 347 personak –227 emakumek eta 120 gizonek– hartu dabe parte anezkaren batean. Aldundiko arduradunak zehaztu dauen moduan, urte bi horreetan lortu dan laneratze ehunekoa %58,79koa izan da. Horrez gain, beste lau anezkarako deialdia zabalik dagola iragarri dau.

ESKU-HARTZE ARLOKO V. HITZARMENA

Teresa Laespadak orain hilebete batzuk Bizkaiko Esku-Hartze arloko V. Hitzarmenaren ganean esandakoa berretsi dau. EH Bilduk egindako agerraldi eskariari erantzunez, Foru Diputatuak “gizarteratze arloko hitzarmenaren negoziiazinoa patronalaren eta sindikatuen arteko eskumen eksklusiboa dala” adierazo dau. “Aldundiko Gobernutik patronalaren eta sindikatuen arteko akordio azkarraren alde egiten dogu behar, horrek zerbitzuen kalidadea eta gizarte arloko bakea ekarriko ditualako”, gehitu dau.

HOUSING FIRST PROGRAMEA

Eguneko gai zerrendea Teresa Laespada Foru Diputatuaren azkenengo esku-hartzeagaz osatu da. Puntu horretan, Aldundiko arduradunak Housing First Programearen balorazinoa egin dau, Talde Popularrak eskatuta. Etixerik ez daukien personen egoerari erantzuteko helburua dauen programa horrek 20 erabiltzaile ditu gaur egun –7 emakume eta 13 gizon–. Urteko 250.000 euroko aurrekontuagaz, Zubietxea alkarte da programea aurrera eroatearen arduraduna.

NOTA DE PRENSA

21/09/18

La Diputación Foral contabiliza que en la época estival han llegado a Bizkaia 2.666 personas provenientes del África subsahariana

La Diputación Foral de Bizkaia ha contabilizado que, desde el 20 de junio de este año hasta el 19 de septiembre, han llegado a Bizkaia un total de 2.666 personas provenientes del África Subsahariana. Así lo ha confirmado la Diputado Foral de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada, que en su comparecencia esta mañana en comisión ha dado respuesta a una solicitud planteada por EH Bildu en la que se le solicitaba información sobre la asistencia prestada por el Departamento ante la llegada de refugiados.

Estas personas, tal y como ha especificado, han llegado a Bizkaia “con un proyecto migratorio que sitúa como destino final a Francia y Bélgica, en la mayoría de los casos”. Por esta razón ha hecho hincapié en que “la migración en tránsito, es una tipología más del fenómeno migratorio”.

Si bien Laespada ha querido matizar que ésta es, desde el 9 de julio, una competencia del Gobierno Vasco, la responsable foral ha recordado el compromiso de la Diputación Foral de “asumir su responsabilidad más allá de las competencias”. Por esta razón, y a raíz de una llamada que la Diputación recibió el 20 de junio alertándole sobre la llegada de un contingente de personas provenientes llegadas en patera en Andalucía, su Departamento ha llevado a cabo una serie de actuaciones. El objetivo de estas acciones ha sido el de “dar una respuesta rápida, profesional y enmarcada en el ámbito de la intervención social”.

Por un lado, Laespada afirma haber mantenido una “comunicación fluida y constante” con la Secretaria General de Estado de Emigración e Inmigración y la Dirección General de Inmigración y atención Humanitaria del Gobierno de España a fin de trabajar conjuntamente. También han logrado establecer una estrategia común con el Ayuntamiento de Bilbao planteando un compromiso de 30.000 euros para la puesta en marcha “de un dispositivo de primera acogida, de atención diurna y nocturna a las personas que estaban llegando”.

Una de las actuaciones más destacadas es la conformación de una mesa interinstitucional formada por el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia, el Ayuntamiento de Bilbao y entidades sociales de intervención social expertas en la materia, tales como Cruz Roja, CEAR y Médicos del Mundo, con el objetivo de establecer una respuesta coordinada.

En lo que a los presupuestos se refiere, Teresa Laespada ha mostrado el compromiso “de establecer la partida presupuestaria necesaria para desarrollar los compromisos que se establezcan en la mesa interinstitucional”.

“El concepto ese de tránsito nos parece que sirve para justificar algunas inactuaciones que no se ajustan a la realidad”, ha replicado el apoderado de EH Bildu, Josu Unanue, en su

turno de palabra. Según el juntero su grupo tiene la sensación de estar recibiendo dos versiones: “Tenemos la sensación que una es la versión que recibimos de la administración y otra la realidad”. En opinión de la apoderada de Podemos Bizkaia, Eneritz de Madariaga, la actuación del Departamento durante estos meses “ha sido nula”. Asimismo, De Madariaga ha achacado a la Diputada Foral el haber “obviado la participación de los movimientos vecinales”.

El apoderado popular, Eduardo Andrés, sin embargo se ha mostrado conforme con la diferenciación entre “persona refugiada” y “persona de tránsito”. El portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha puesto el foco sobre los procesos de devolución de personas que se están dando en Francia. Ambos apoderados han hecho hincapié en la necesidad de que todas las instituciones afronten esta situación conjuntamente.

En palabras del socialista Juan Otermin, Bizkaia tiene “un problema que tenemos que responder coordinadamente” para el cual ve necesario “estar todos en la misma hoja de ruta”. En este sentido, Otermin ha aclarado que “no solo basta con la solidaridad, hay que darle contenido”. En la misma línea, la apoderada nacionalista Jane Eyre Urkieta ha recordado que “hemos vivido y seguimos viviendo una realidad delicada”; asimismo ha mostrado su agradecimiento a las diferentes entidades dejando claro que esto “no quiere decir que se haya desdeñado a la sociedad civil”.

LANZADERAS DE EMPLEO

La Diputada Foral de Empleo ha abierto la sesión realizando una evaluación de la inserción laboral de las personas participantes en las 17 lanzaderas de empleo que actualmente conforman el programa Anezka. Desde que en 2016 se pusiera en marcha hasta hoy, un total 347 personas – 227 mujeres y 120 hombres- han participado en alguna de las lanzaderas. Tal y como ha especificado la responsable foral, el porcentaje de inserción alcanzado en esos dos años ha sido del 58,79%. Asimismo ha anunciado que está abierta la convocatoria para cuatro lanzaderas más.

V CONVENIO DE INTERVENCIÓN

Teresa Laespada ha reiterado lo ya expuesto hace unos meses sobre el V Convenio de Intervención Social de Bizkaia. Ante una petición de comparecencia de EH Bildu, la Diputada Foral ha manifestado que “la negociación del convenio de intervención social es una competencia exclusiva de la patronal y de los sindicatos”. “Desde el Gobierno de la Diputación abogamos por un acuerdo rápido entre patronal y sindicatos que refundará una calidad en los servicios y en la paz social”, ha añadido.

PROGRAMA HOUSING FIRST

El orden del día se ha completado con una última intervención de la Diputada Foral Teresa Laespada. En este punto, la responsable foral ha realizado una valoración del Programa Housing First a petición del Grupo Popular. Este programa, que tiene como objetivo afrontar el sinhogarismo, tiene actualmente 20 usuarios y usuarias – 7 mujeres y 13 hombres-. Con un presupuesto de 250.000 euros al año es la asociación Zubietxea la encargada de llevar este programa adelante.